

# B

BARREN

# Motor hotsa Mintxetan

TOKIKOM





ARDANTZABIDE

# Zumaia

## Etxebizitza berriak preziorik onenean

Zumaiaiko Ardantzabiden prezio mugatuko 32 etxebizitzetako bat nahi baduzu, zoaz Udaletxera eta izena eman.

Epea: martxoaren 11tik apirilaren 19ra.

Argibide gehiago hemen:

[www.ardantzabide.es](http://www.ardantzabide.es)



Zumaia Udalak

# 943 31 68 68

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)



Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.



TERRAZA HANDIAK

3 logelako etxeak  
garaje eta trastelekudunak  
**234.278€** + baz.

Erabili argazki merkatuztar azarapena. Informazio hau alda dezake azarazi tekniko edo komertzialengatik. Inbentarioan ez dago gure bulegoetan iragarri honetan ez dagoen gainerako informazio gutxi, S15/80 Enago Delentzua, apirilaren 23koak, erabaten duena.

# LAGUNAK KOLTXOI DENDA- TEXTIL HOGAR

**KOLTXOI AUKERA HANDIAGOA DUGU!**

**ZATOZ, %10etik %25era-ARTEKO DESKONTUAK**

**IZANGO DUZU KOLTXOI ETA OHE KUTXETAN!**

Koltxoi marka guztiak ditugu, bilatzen duzuna ez baduzu hemen topatzen ekarri egingo dizugu. Anima zaitetz, eta zatoz bisitan.



**Azken egunak!**

**Neguko izarak**

**%40ko**

**beherapenarekin**

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## Dentista solidarioak Senegaldik bueltan

Aste Santua Senegalgo Hego Ekialdean pasatu dugu dentista lanetan, Kedougou hiriburutik gertu dauden Affia eta Dindefelo herrixketan. Dakarretik hamalau orduko bidaia egin genuen kotxez hara iristeko, 40 gradutik gorako temperaturarekin. Esperientzia izugarri ona izan da. Affia herrixkak 300 biztanle dauzka, eta han lan egin duen lehenengo taldea izan gara. Dindefelo, aldiz, pixka bat handiagoa da, baina pare bat egunetan gogor lan egin genuen guregana gerturatu ziren guztiak tratatu ahal izateko.

Konpondu ezin diren haginak atera, eta enpasteak eta aho garbiketak egiten jardun dugu.

Garbiketak egiteko ultrasoinu tresna autonomoa behar da han, ur gordailua daukana. Aparatu hau zuen laguntzari esker erosi ahal izan dugu. Enpasteak egiteko materialaren zati bat eta Senegalen antibiotikoak erosteko erabili dugu diru hori. Baita Affiako herritarrei erropak erosteko ere.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu proiektu honetan nolabait parte hartu duzuen guztioi. Eskerrik asko hagineta zepiloak saltzen lagundu diguten gure senide eta lagunei, zepiloak erosi dituztenei, Pintxo Solidarioan parte hartu duten Maala, Gabaz, Pilon, Iriondo, Lanbroa, Txarriduna, Gran Siglo, Viento Sur, Malape eta Ilunpe tabernei, BARREN astekariari, Elgoibarko lau farmaziei eman dizkiguten botika guztiengatik, eta norbanako elgoibartarrei eman dizkiguten diru

laguntzengatik.

Zuei esker, Affia eta Dindefelo herrixketan hagineko mina asko murriztu da.

Guk gure aldetik, lanean jarraituko dugu Senegalen eta Ugandan ere badauzkagun proiektu txiki hauek luzaroan iraun dezaten.

Mila esker, bihotz-bihotzez.



Nerea Iñiguez Zubiaurre

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Eskerrak eman nahi dizkizuegu ‘Dentista solidarioak’ proiektuan parte hartu duzuen guztioi”**

# Sagardotegira irteera

**APRILAK 13,  
zapatua**

**40 EURO (MENUA + BUSA)**

EMAN IZENA elkarteko bulegoan. Azken eguna apirilak 10  
(943 741 626, [komunikazioa@elgoibarkoizarra.com](mailto:komunikazioa@elgoibarkoizarra.com))

-13:00 Autobusa King-Kongen  
BAZKARIA LARRARTE SAGAROTEGIAN  
PARRANDA ASTIGARRAGAN  
-00:00 Autobusa Astigarragan






Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA  
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA  
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel  
Ugarteburu, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai  
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus  
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes  
Rodríguez, Maialen Arnedo, Ainhoa  
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,  
Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel  
Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-  
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Gure euskara ez dugu galdu behar

Martxoaren 20an, Korrika Elgoibartik pasatu zen egunean bertan, ehun urte bete ziren nire ama Eugenia jaio zela, eta duela 31 urte hil zen, egun berean. Zelako kasualitatea, ezta? Anekdotak horrek hunkitu egiten nau eta gogoratzen naizen bakoitzean, malako irtetean zaizkit. Martxoaren 20a egun zoragarria da niretzat, egun berezia. Eta aurtengo martxoaren 20an "*Korrika, korrika*" oihuak entzutean, berriz hunkitu naiz, bizi izan balitz nire amatxoren urtebetetzea ospatuko genukeelako. BARRENeko orri honetatik eskerrik asko Korrika antolatuta zutenei, eurek jakin gabe, martxoaren 20a aukeratu zutelako Elgoibartik pasatzeko.

Euskara, nolako berba ederra; euskara, nolako hitz polita; euskara, gure ama hizkuntza dugun horrekin ea jarraitzen dugun beste ehun urtean gutxienez, "*korrika, korrika*" esaten.

Marisol Odria ☺

### Txomin Mujikari, mila esker.

Martxoaren 17an eta 24an, eguerdian, Bilboko Udala Musika Bandak Iruñeko Gaiarre antzokian eta Bilboko Euskalduna jauregian kontzertu bana eman zuen, hurrenez hurren. Elur seme musika-joleari deitu ziotenez perkutsio-taldea indartzeko, batean zein bestean izan ginen emaztea eta biok.

Txomin Mujika Latxa gure udal musika-bandaren zuzendaria ez ezik, Bilbao Musika erakundeko gerente eta horren baitan dagoen musika-bandaren kontzertuen aurkezle ere bada. Elgoibarko Herriko antzokira joaten garenok Txominen aurkezpen mami-tsuak, jakintsuak eta grazia handikoak entzun ohi ditugu, euskaraz eta gaztelaniaz. Horrez gain, maisuki zuzentzen duen musika-bandaren soinuak gozamen handiko une gozoak ematen dizkigu.

Iruñeko Gaiarren [Julian Gaiarre (1844-1890), Erronkariko operako tenore abeslari ospetsua, euskaraduna zen] euskaraz eta gaztelaniaz eman zizkigun adierazpen argigarriak Mujikak, antzokia beterik zegoela, eta hango musika-bandaren jarraitzaileek euskaraz entzuteko aukera handirik ez dutelarik

ziur aski. Bilboko Euskalduna ere muku bete zen, bazen arrazoirik horretarako: orain arte izan den zuzendariaren agurra, hamar urte pasa egin ondoren. Hau dela-eta, oso egitarau erakargarria atondu zuten, Oskorriko Natxo de Felipek eta Anton Latxak, Igor Yebraren dantza eta koreografia eskolakoek, udal txistularien bandak eta Kepa Junkerak parte hartu zuten bandarekin batera pieza desberdinetan. Txominen aurkezpena bikaina izan zen, hizkuntzei dagokienez zein mamiari eta esateko moduari dagokienez. Euskaldun jauregiak izenez gain, izana ere berreskuratu zuen neurri handi batean ehunka esker oneko ikus-entzuleren aurrean.

Pello Arrieta Soraiz ☺



Zuhaitz  
Gurrutxaga

Aupa, Unai. Iritsi zaigu ZoZoak Beleari atalean azken aldiz idazteko ordua. Ez dakit ziur zenbat denbora daramagun hilabete eta erdian behin BARRENEkin izan dugun hitzordura biok batera gerturatzan.



Unai  
Arrieta

Oroit dut bai, Zuhaitz, gure lagun Iñaki de Mujikaren irratsaioan elkar ikusi genueneko eta baita Lanbroako gau hura ere. Arrazoi duzu bai, BARRENEko atal honetatik kanpo gutxitan egin dugula topo. Kirolariak biok, elgoibartarrak sortzez, baina bakoitza geure proiektu eta egitasmoetan murgildurik.

Gogoan daukat Mexikotik idatzl nizuneko, eta urte batzuk dira jada Amerika aldean egon ez naizela, beraz denbora dezentean izan gara ipurbeltz zu eta ni. Esan bezala hilabete eta erdi eduki ohi dugu gure testua BARRENERa bidaltzeko, eta legezkoa da jendek jakitea beti azkeneko egunean korrika eta presaka egin izan dugula gure lana. Seguru naiz, gai honetaz sekula hitz egin ez dugun arren, egon

Eta zuk bezalaxe, nik ere badaukat halako errezelo bat: zalantza daukat gure idatzietan zebaterainoko konekxioa izan dugun, gaietan, estiloan, forman... Zu erraztasunez ikusi zaitut, Zuhaitz, arin, umorez, gertaera dibertigarrien kontaketan. Nire idatziak astunagoak izan direlakoan nago, batzuetan transzendetalegi jartzeko joera daukat.

**“Mila esker BARRENI gure pasarteak**

**kontatzeko aukera polit hau eskaintzeagatik”**

**“Eskerrik asko, BARREN; eskerrik asko,**

**irakurle. Ongi izan, Zuhaitz”**

dela egunik nik bidalitako idatziari nondik nora heldu jakin gabe egon zarena. Egia zor, alderantziz ere gertatu izan zait. Behin baino gehiagotan zure testua jaso, irakurri eta pentsatu: ze kristo erantzun behar diot nik honi orain?. Urte hauetan zehar gehiagotan koinziditu dugu email bidez, katean aurrez aurre baino. Gogoan dut ordea ZoZoak Beleari atalari buruz aurrez aurre hitz egiteko aukera izan dugula behin edo behin. Behin, Iñaki De Mujika gure lagunaren irati tertulia polit hartan, eta beste batean, Elgoibarren, parrandan ari ginela, Lanbroa zaharreko komunean, ordu txikitari. Ez dakit, Unai, gure istorioei inork arretarik jarri izan dion denbora guztin honetan. Saiatu gara behintzat kirolariok daukagun ez jakin fama hori pixkat leuntzen 1.400 karakterez osatutako testu bat idazteko kapaz garela erakutsiz. Ea laster ikusten garen, kantxa, zelai, antzoki edo tabernaren batean. Mila esker BARRENI gure pasarteak kontatzeko aukera polit hau eskaini izanagatik.

Kirolarioi irati edo telebistetan, egunkarietan tarte zabalak eskaintzen dizkigute. Gure esanak, ordea, antzuak izan ohi dira ia beti. Eta ez dakit oraingoan ere fundametzeko ezer esateko gai izan garen. Hala ere, Zuhaitz, aitortu behar dizut gustura aritu naizela. Gure bizipenei hitzak jartzea, gure mundutxo papereratzea, esperientzia ederra izan da. Ez dakit haria jostorrazaren begian sartzea lortu dugun, ez dakit gure irakurleengana iristeko gai izan garen, baina merezi izan du saiakerak. Badira bizitzan nolabaiteko asebetetasuna sentitzeko lorpen handirik behar ez duten gauzak, badira bizitzan saiatze hutsak berak zoriotu egiten nauten jarduerak. Eta zoriontsu izan naiz denbora guzti honetan zehar. Izan ere, batzuetan helburua ez da norabait iristea, bidaiatzea baizik. Eskerrik asko, BARREN; eskerrik asko, irakurle. Ongi izan, Zuhaitz.

III. URTEURRENA

**JUANA URANGA ARMENDARIZ**

2010eko martxoaren 26an hil zen. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 6, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

Gogoan zaitugu



## Baserri-paisaien balioaz nola ohartarazi aztertzeko batzarra antolatu du Debemenek apirilaren 24rako

Saio irekia izango da, baina aldez aurretik izena eman behar dute interesatuek

Baserri-paisaien elementu bereizgarriak kontserbatu eta haien balioa agerian jartzeko ekintza aproposenak zeintzuk diren identifikatu nahi ditu Debemenek, eta horretarako, batzar bat antolatu du Elgoibarren apirilaren 24rako. Batzar hori Kultur Etxeko sotoan izango da (19:00-21:00). Saio irekia izango da, baina antolatzaileek jakinarazi dute beharrezkoa dela aldez aurretik izena ematea. Horretarako bi aukera jarri dituzte: [paisaia.at@paisaia.com](mailto:paisaia.at@paisaia.com) helbidera idaztea edota 686 738 152 edo 943 335 048 telefono zenbakietako batera deitzea.

### Baserri-paisaiak, gure kulturaren oinordeko

Gipuzkoa eta Bizkaiko beste zortzi landa garapenerako elkarterekin batera, landa-paisaia atlantikoen balioa agerian jartzeko ekimenean murgilduta dabil iaztik Debemen, Debabarrenako Landa Garapenerako Elkarte, eta arduradunen ustez, orain arte egitasmo honetan egindako lanak agerian laga du baserri-paisaiak ez direla edonolako balioak dituzten paisaiak. "Oso nabarmena da baserri-paisaiak euskal kulturaren testuinguruan esanahi berezia dutela, bertako nortasuna, historia eta kulturaren oinarritzko elementu direlako, sinbolismoz beteak. XX. mendearen hasieratik nabaria da egun paisaian ikusgai diren hainbat elementu eta ezaugarri beste garai bateko baserriko kulturaren oinordeko direla, onerako eta txarrerako atzean utzitako garaien arrastoa, noizbait herri bezala izan ginen hori gogora ekartzea ahalbidetzen digun ebidentzia". Edonola ere, etorkizunera begiratzea ere ezinbestekoa dela-eta, hurrengo belaunaldiari oinortzean zer laga nahi diegun erabaki



beharko genukeela uste dute, eta, era berean, egun lur horietan bizi direnek bizi-baldintza duinak izan ditzaten moduak bilatu. Egitasmoaren fase honetan, proposamenak egitea bilatuko dute, eskualdeko baserri-paisaietarako ekintza zehatzak mahai gainean jarri.

Saioaren ondoren, proposatzen diren ekintzen zehaztapenean sakonduko dute, eta horiek eskualdeko administrazioei eta eragile sozial eta ekonomikoari aurkeztuko dizkiete, hurrengo urteetan ekimenak gauzatzeko asmoz.

## Igogailua hondatu zuten gazteek barkamena eskatu dute

Elgoibarko Udalak bere webgunean zintzilikatu du 12 eta 13 urteko sei gazteek barkamena eskatuz Udalera bidali duten idatzia ([www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org)). Eskuz idatzitako gutuna da, gaztelaniz dago, eta idatzian gazteek aitortu dute ez zutela igogailua hondatzeko inolako asmorik. "Ez genuen uste egin genuenak igogailua honda zezakeenik", dio. Barkamena adierazi dute gazteek, eta aurrerantzean kontu handiagoz jokatu dutela gehitu. Gazteen barkamen-eskea eskertzekoa dela adierazi du Elgoibarko Udalak.

Gazteek egindako erabilera okerragatik igogailua hiru egunez egon zen geldia, eta konpontze-gastuak (2.000 euro inguru) gaztetxo-en gurasoei ordainaraziko zela jakinarazi zuen Udalak.

## Mutriku eta Elgoibar arteko autobus zerbitzua handituko dute bihar, Berdel Eguna delako

Mutrikun Berdel Eguna ospatuko dute bihar, eta hori dela-eta, Mutriku-Mallabi autobus linea indartuko dute. Elgoibartarrek, beraz, autobus zerbitzu zabalagoa izango dute bihar Mutrikura joan-etorria egiteko. Normalean hamalau zerbitzu izaten dira, eta bihar hemeretzi egongo dira. Elgoibartik autobus zerbitzu berezia irtengo da 17:45ean. Ordutegi guztiak [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es) webgunean.

## Lekua **Sigma auzoko bazkaria**



Santiago Egunez egiten ziren jaiak Sigma auzoan, eta hori dela eta, egun hori aukeratu dute auzokoek bazkaria egiteko. Sigmako eskolan ikasitakoei eta auzoan bizi izandako jubilatuei egin diete bazkaritarako deia. Interesatuak ekainaren 1erako eman behar dute izena, eta 45 euro sartu La Caixako ondorengo kontu korrante honetan: 2100 4168 71 2100263203. Era berean, argazki bilduma bat ere egin nahi dute, eta auzoko argazki zaharrak biltzen hasi dira horretarako. Argazkiak dituztenei sobre batean izen-abizenak jarrita Jai Alai tabernan edo Sigmako elkartean (19:00-0:30) lagatzeko eskatu diete edota *sigma-eskola@gmail.com* helbidera bidaltzeko. Papereko argazkiak eskaneatu ostean itzuliko dizkiete jabeei.

**Zenbakia 632.881**

Elgoibarko Udalak 632.881 euroko diru poltsa du aurten jai batzordeentzat eta kultur jardueretarako. Horrez gain, kontuan hartu behar da beste 36.500 euro banatuko dituela diru-laguntzetarako eskaera egin eta oinarriak betetzen dituzten kultur elkarte eta erakundeen artean. Jai batzordeei dagokienean, San Roke, Sallobente, Idotorbe, Aiestia, Arriaga eta Altzolakoei 3.150na euro jasoko dituzte, Urruzunokoak 500 euro, Maalakoak 650 euro eta Errosario kalekoak 1.300. Sargoateko erromeria ere 1.300 euroekin lagunduko du, eta Santumotzekoa 1.150 euroekin.

## **Eguzki lantegian lan egindakoek bazkaria egingo dute hilaren 11n**

1956an sortu zuten Eguzki tailerra Elgoibarren, Santa Ana kaleko Eroski dagoen lekuan. Gero, gaur Gaztetxea dagoen lekura aldatu zuten lekuz, 1961. urtean. Orain, bazkaria egingo dute han lanean ibilitakoek. Apirilaren 11rako jarri dute hitzordua. 14:00etan batuko dira Sigmako zubian eta taldeko argazkia atera ostean, elkarrekin bazkalduko dute denek. Harremanetarako: 626 069 160 (Sabin).

## **Ezintasuna dutenentzako aparkatzeko txartelak**

Udalak 2012an jarri zuen martxan ezintasuna duten pertsonen aparkatzeko txartelak berritzeko prozesua. Bi helburu zituen prozesu horrek: batetik, txartel guztiak Eusko Jaurlaritzak diseinatu-tako formatu berrira egokitzea, eta bestetik, txartelen erabilera desegokia saihestea. Lan horiek eginda, Udalak jakinarazi du 187 pertsonak dutela Elgoibarren txartela, eta horiek, soilik horiek, laga ahal izango dutela kotxea ezintasuna dutenentzat gordetako aparkaleku berezietan.

V. URTEURRENA



## **JOSE PEREZ HERMECHEO**

*Zoriontsu egiten gaituzten haiek merezi dute gure esker ona, eta horregatik eskertzen dizugu zure familiak eta lagunak eman diguzun baldintzarik gabeko zoriontasuna*

*Betirako, zure*



2008ko apirilaren 6an hil zen, 78 urte zituela. V.urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 8an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde aurretik.

# MINTXETAN GASOLINA USAINEAN

**Bost urteko etenaren ostean, Urnabitza Moto-klubak Elgoibarko Enduro txapelketa antolatu du apirilaren 14rako. Zailtasun askorekin, baina ilusio handiz dihardute Elgoibarko motorzaleek proba hori antolatzen, eta ondo eginiko lanak emaitza onak ematea espero dute.**

**Ainhoa Andonegi**

**M**intxetan daukagu hitzordua Urnabitza taldeko motozaleekin. Gari Ulazia eta Adrian Ortiz de Villalba iritsi dira lehenengo. Autotik irteten ari direla, makuluak hartu ditu Adrianek eskuan. Lesionatuta dago, baina berehala argitu du ez dela izan motoan izandako istripu batengatik, hala ere, kolpe asko hartutakoa dela aitortu du. Aitor Osoro iritsi da hurrengo, eta Jon Leiaristi azaldu da azkena. Motoa furgonetatik jaitsi eta karpa prestatu dute erretraturako. Ilusioa nabari zaie. Zailtasun guztien gainetik, Elgoibarko Enduro txapelketa ondo baino hobeto irten dadin lanean dihardute buru-belarri.

## **Motozaletasuna Elgoibarren**

Txusko motokluba desagertu ostean sortu zuen Elgoibarko motozale talde batek Urnabitza kluba. Motoan ibiltzea dute gustuko, eta txapelketetan parte hartzea ere bai, baina batzuetan lehiaketa albo batera laga eta antolakuntza lanetan jardutea tokatzen zaie. “Guk antolatu ezean, Elgoibarren ez litzateke horrelakorik egongo”, esan du Adrianek. “Lan handia eta diru gutxi daukagu”, gaineratu du baina, esaera zaharrak dioen moduan, *gustuko lekuan aldaparik ez*. Oraingoan, beraz, Enduro txapelketa prestatuko dute, baina ez dute parte hartuko.

Motorako zaletasuna Elgoibarren badagoela azaldu dute Urnabitza taldekoek, eta beterranoen artean Jon Leiaristi nabarmendu dute: “Bizi osoa darama gupil gainean Jonek! Bera da gure irakaslea”, dio Adrianek irribartsu. Moto gainean dabil bien bitartean Jon, Mintxetako aparkaleku inguruan. Gasolina usaina eta motor hotsa nagusitu dira bat-batean. Hala ere, garai batetik hona motozaletasunak behera egin duela uste dute. Ahal duten bitartean, behintzat, euren eutsiko diote motozaletasunari, gupil gaineko sentsazioak gustuko dituztelako.



Jon Leiaristi, Gari Ulazia, Adrian Ortiz de Villalba eta Aitor Osoro.

**“Motorako zaletasuna badago Elgoibarren, baina garai batetik hona behera egin du”**



## Elgoibarko Enduro Txapelketa, hilaren 14an, Mintxetan

**G**asolina usaina eta motor hotsa nagusituko dira apirilaren 14an Mintxeta inguru-ko zelaietan. Bost urteko etenaren ostean, beraz, aurten berreskuratu dute proba hori. Mintxeta inguruko berdegunean jokatu da txapelketa, eta Euskal Herriko Enduro Txapelketarako proba puntuagarria izango da. Zallan (Bizkaia) jokatu zen estreinako proba, otsailaren 23an, eta bigarrena izango da Elgoibarkoa, apirilaren 14koa.

Mintxetako aparkalekutik abiatuko dira gidariak, bertan egongo baita 'paddock'-a, eta Azkaratetik Albitxuri inguruetara bitartean prestatu dute zirkuitoa. 30 kilometro inguruko ibilbidea prestatu dute, eta ordubete izango dute partaideek itzulia egiteko. Proba ikusteko lekuri egokiena Mintxeta inguru izango da, aire libreko igerilekuen atzealdean dagoen zelai bat zehazki, han egingo dute-eta erlojuaren aurkako probetako bat. 9:00etan hasiko da proba, eta 14:30ean amaitzea aurreikusten dute. Gipuzkoa, Bizkai, Araba, Nafarroa, Gaztela-Leon edota Errioxa aldeko ehun motorzale inguru espero dituzte antolatzaileek. Horien artean, Euskadiko txapeldunak etorriko dira, eta kontuan hatzeko izenen artean Borja Nieto, Alvaro Garcia eta Josu Artola eta Txomin Arana aipatu dituzte. Kasu honetan motorzale elgoibartarrak antolakuntza lanetan ari dira, eta horregatik, ez da Elgoibarko partaiderik izango txapelketan. Urnorbizta motoklubeko kideek jakinarazi dutenez, hoguei bat lagun ari dira antolakuntza lanetan, baina lanerako prest dauden esku gehiagoren laguntza eskertuko dutela azaldu dute. Laguntzeko prest daudenek honako telefono zenbakira deitu dezakete: 647 772 325 (Aitor).



### AITOR OSORO

Euskadiko txapelduna beterranoetan

## “Kirol sakrifkatua da, baina satisfazioa ere ematen du”

2012ko Euskadiko Enduro eta Cross Country Txapelketako txapelduna da Aitor Osoro elgoibartarra. Aurten ere parte hartzen dihardu txapelketan, eta momentuz jokatu diren bi probetan bigarren egin du.

#### esango zenioke kirol honetan hastear dagoen bati?

Animatu egingo nuke, baina argi lagako nioke oso kirol sakrifkatua dela. Mendian motoan ibili ostean material guztia ondo garbitu behar izaten da, motoa bera eta erropak, bereziki. Eta gastua ere badauka. Kirol minoritarioa da, eta ez dago erraztasunik kirol hau praktikatzeko. Kirol sakrifkatua da, baina satisfazioa ere ematen du.

#### Motoan ibiltzen ikasteko kolpe asko hartutakoa zara?

Bai! Eta oraindik orain ere kolpe asko hartzen ditugu. Mendian ibiltzen gara normalean, eta sarri erortzen gara. Urteekin ikasi egiten da, eta orduan hasten zara gozatzen, baina hasierako etapa zaila eta gogorra izaten da. Kolpe asko hartu behar da gozatzen hasi aurretik! Askok laga egiten dute, baina jarraitzen duenak gozatzen ikasten du. Kolpeak hartuz ikasten da.

#### Elgoibarren badago motorako zaletasunik?

Badago, bai, baina ez orain urte batzuk bestekoa. Motozaletasunak behera egin du Elgoibarren.

#### Euskadiko Enduro eta Cross Country txapelketa irabazi zenuen iaz. Garaipen horri eusten saiaturako zara aurten ere?

Denboraldia hasi da dagoeneko, eta saiaturako naiz, baina ez da erraza izango. Zallan eta Burgosen hartu dut parte aurten, eta bigarren egin dut bietan. Bi probetan gidari berberak irabazi dit.

Aspalditik diharduzu motoen munduan. Zer



**Aita Agirre plazan jarleku bat kendu dute:**

“Aita Agirre plazako alde batean zegoen jarleku bat kendu egin dute, eta ez dakigu zergatik. Falta handia egiten dugu, eta eskertuko genuke beste jarleku bat jarzea. Eskerrik asko”.



**Trenbide kaleko lurzorua hondatuta dago:** “Trenbide kaletik Ubitarte alderantz doan bideko lurzorua oso egoera txarrean dago. Zuloz beteta dago asfaltoa aspalditik, eta iruditzen zaigu badela hori konpontzeko garaia”.

**Korrika Elgoibartik pasatu zen egunean ez zuten jaitsi San Lazaro aurreko pibotea:** “Korrika Elgoibartik pasatu zen egunean jende asko batu ginen euskararen aldeko lasterketan, herri barruan bereziki. Maalako ingurunean asko zabaldu zen tropela, eta albora begiratu nuen une labur batean, sekulako kolpea hartu nuen San Lazaro aurreko pibotearen kontra. Lurrera erori nintzen, baina zorionez, ez zitzaidan ezer larririk gertatu. Nola da posible horrelako ekimen baten aurrean piboteak ez jaistea? Hurrengorako kontuan hartzea espero dut”.



**Basarte auzoan lekuz aldatu dituzte zabor edukiontzia:** “Basarte auzoko zabor edukiontzia lekuz aldatu dituzte, eta auto gidarientzako ikusmena oztopatzen dute. Auzora sartzeko bidegurutzean bertan jarri dituzte, eta ondorioz, ez dira ikusten behetik gorantz etortzen diren autoak. Zabor edukiontzia hobeto zeuden lehengo tokian eta eskertuko genuke berriz ere hara eramango balituzte”.





# Euskal Herriko Itzulia Elgoibarren



**E**lgoibarren hasi zen astlehenean Euskal Herriko Itzulia, eta jaieguna izaki, sekulako jendetza batu zen bai irteerako unean zein arratsaldean, helmugan. Hasi eta berehala sortu zen ihesaldia, eta bertan sartu zen Amets Txurruka (Caja Rural), Laurent Didierrekin (RadioShack) batera. Bost minututik gorako aldea ere izan zuten, eta Txurruka saiatu zen azken unean eraso jo eta tropela estutzen. Baina Saxo-Tinkoffen lanari esker, helmugara iristeko 18,5 kilometro falta zirela, ezerezean geratu zen haren ahalegina. Helmugara, hamazazpi laguneko taldea iritsi zen aurrena, eta Simon Gerrans (Greenedge) izan zen azkarrena, Peter Velitsen (Omega) aurretik. Txurrukak mendiko lideraren mailota jantzi zuen. Biharamunean Elgoibartik abiatu zen lasterketa, Gasteizerantz. **Argazki gehiago:** [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian.



Damiano Cunego txirrindularia autografoak sinatzen.



Joxean F. Matxin Lampre-Meridako zuzendaria zale batekin.



Jon Izagirre Euskaltel Euskadikoa autobusetik jaistean.



Zaleek ez zuten protagonisten ondoan egoteko aukerarik galdu.



Profesionalak, lasterketa abiatu aurreko azken ukituak egiten.



Samuel Sanchezek ikusmin handia sortu zuen irteera puntuan.

# Euskal Herriko itzulia



Irteerako unea.



Jens Voight, adeitsu, zaletxo gazte batekin.



Profila, ibilbidea... Zaleak, informatzen.



Philippe Gilbert eta Maxime Monfort, irribarretsu, irteeran.




Voight, Zubeldia, Kloden, Andy Sleck eta Monfort.



Jens Voight omendu zuen antolakuntzak Elgoibarren.



Juanma Garate, Itzuliko zuzendari Jose Luis Arrietarekin.



Movistar taldekoak, erdian Beñat Intxausti dutela.



Elgoibartarrak Alberto Contadorrekin.



Alberto Contador, Kalegoen plazan, zaleen eskariei erantzuten.



Elgoibartarrak, gurutzaguneak zaintzen.



Ametz Txurruka eta Egoi Martinez.



Simon Gerrans, asteleheneko garailea, besoak altxata, helmugan sartzean.



Romain Sicard eta Igor Anton Euskaltel Euskadikoak lasterketa abiatzeko zain.



Simon Gerrans liderraren mailotarekin.



Gerrans, asteleheneko irabazlea.



Ametz Txurruka mendiko mailotarekin.



Plaza jendez gainezka egon zen bi egunetan. Asteartekoa da irudia.



Gaztetxoek gogotik gozatu zuten.



Jon Redondo Jaurizaritzako kirol zuzendaria zinta mozten.



Laurent Didier eta Amets Txurruka, astelehenerako ihesaldian.



Saxobank taldekoak ahalegin betean, tartean Alberto Contador hortzak estututa.

## Euskadiko jubenil nesken azken fasea Elgoibarren jokatuko dute asteburuan

Lau talde lehiatuko dira, tartean Elgoibarko Lauko taldea

**E**uskadiko Txapelketako azken fasea Elgoibarren jokatuko dute asteburuan jubenil neskek. Etxebarriko Kukullaga, Ermuko Errotabarri eta Zarauzko Aiala taldeek eta Elgoibarko Lauko taldeak hartuko dute parte txapelketako azken txanpa honetan, eta partida bana jokatu beharko dute apirilaren 5, 6 eta 7an.

Sanloko arduradunek jakinarazi dute Twitter bidez emango dutela txapelketaren berri. Besteak beste, partidetakonean uneko markagailuen eta eguneko emaitzen berri emango dute, baina, era berean, argazkiak ere esegiko dituzte.



### Eskubaloi campusa antolatu du Sanlok uztailerako, Canfranc-eko estazioan

Udaldirako programaren berri eman du Elgoibarko Sanlo Eskubaloi Taldeak. 2008an Eskubaloi Eskola sortu zutenetik hona hainbat ekintza antolatu dituzte, dela hondartza-eskubaloia, Camargora (Kantabria) eta Baionara irteerak, direla PINera irteerak..., eta aurten eskubaloi campusa antolatu dute uztailerako, kirolerako eta bereziki eskubaloiarako zaletasuna pizteko. Eskaintza 2001 eta 2004. urte bitartean jaiotako neska mutilei zuzendu dute, eta apirilaren 30era arteko epea jarri dute izena emateko. Plaza kopurua, baina, mugatua izango da, eta horrenbestez, Klubak ohartarazi du interesatuek hobe dutela lehenbailehen eman izena. Interesatuek Sanlok kiroldegian daukan bulegoan eman behar dute izena, astelehenetik barixakura, 18:00etatik 19:00etara.

Uztailerako eskaintza da, eta bialdi izango dira aukeran. Bata, uztailaren 7tik 14ra, eta bestea uztailaren 14tik 21era. Campus horretan ohiko udalekuetan egiten dituzten jardueraz gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek, baina horrez gain kirolarekin lotura duten ekintzak ere egingo dituzte: entrenamenduak, partida, patinajea, mendi irteerak, igerilekura osterak... Kuotari dagokionean, berriz, Sanlo EKTko bazkide direnek eta Elgoibar, Deba eta Mendaroko haurrek 195na euro ordaindu beharko dituzte zortzi eguneko egonaldiatik eta bazkide ez direnek, berriz, 220 euro. Kuota horretan ondorengoak sartzen dira, besteak beste: asistentzia, joan-etorriko autobusa, entrenatzeko materiala, igerilekua eta kiroldegia erabilerara, aseguruua, eta campuseko oroigarria. Informazio gehiagorako: [www.sanlo.net](http://www.sanlo.net) / [sanlolatxo@gmail.com](mailto:sanlolatxo@gmail.com) / 679088201 (lon).

### Morkaikorekin Tena bailaran izan dira hogeit lagun Aste Santuan



Pirinioetako Tena bailaran pasatu dituzte Aste Santuko oporrak Morkaikorekin joan ziren hogeit lagunek. Irteera horretan parte hartu zutenek azaldu duteenez, eguraldiak ez die gehiegi lagundu, baina, hala ere, ondo baino hobeto pasatu dute. Tra-besiako eskiak eta elurretako raketak hartuta joan ziren Pantico-sa ingurura, eta elurra, mendia eta lagunartea uztartu dituzte. Irteera honetako erretratu gehiagokusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net).

# DAVID GARRIDO

Concepto Egile taldeko kapitaina

**Concepto Egile areto futbol taldeak esku-eskura dauka liga txapelketa. Arnedo taldearen kontra jokatuko dute asteburuan, eta puntu bakarrarekin nahikoa dute txapelketa irabazteko. Denboraldi bikaina egiten dihardute elgoibartarrek: hogeitaz partidak hemeretzi irabazi eta bestea berdindu egin dute. Liga irabazten badute, bigarren mailarako igoera fasea jokatuko dute maiatzean. David Garrido taldeko kapitainak 17 urte zituenetik jokatzen du areto futboleant, eta aitortu du taldea bigarren mailan lagata erretiratzea gustatuko litzaiokeela.**



## “Mailaz igotzea zaila izango da, baina ahalegin guztia egingo dugu”

**Denboraldi bikaina egiten ari da Concepto Egile taldea. Nola-ko aurreikusten duzu denboraldi amaiera?**

Asteburu honetan Arnedon jokatuko dugu eta berdinketa nahikoa dugu liga txapelketa irabazteko. Baina hori ez da nahikoa mailaz igotzeko. Igoera fasea jokatu beharko dugu gero, eta hori zailagoa izango da. Maila handiko taldeak daude beste multzoetan, eta seguru ez dela erraza izango. Hala ere, guk ahalegin guztia egingo dugu mailaz igotzeko.

**Urte hasieran espero zenuten horrelako denboraldia egiterik?**

Gure asmoa saillkapen nagusian hiru lehenengoan artean amaitzea zen. Lehenengo hirurek Kopa jokatzen dute, eta hiru postu horietako bat lortzeko lehian sartzea zen gure asmoa. Bigarren denboraldia dugu maila honetan eta taldea sendotu nahi genuen. Uste genuena baino askoz hobeto joan da denboraldia, baina, eta Zierbena bigarren saillkatuaren kontrako partida ez beste guztiak irabazi egin ditugu [Zierbenaren kontra berdindu egin zuten]. Apirilaren 13an jokatuko dugu Olaizaga kiroldegian Zierbenaren kontra, eta ordurako liga irabazita baldin badaukagu, ospakizun ekitaldiren bat antolatuko dugu.

**Zein izan da horrelako denboraldia egitearen sekretua?**

Lan handia egin dugu, eta lan horrek fruitua eman du. Astero hiru entrenamendu egin ditugu, eta aste askotan lau aldiz entrenatu gara. Entrenatzaileak oso ondo prestatzen ditu saioak, eta hori igartzen da. Aurten, gainera, jokalar berriak iritsi dira

taldera, eta fitxaketetan asmatu egin dugu. Horrez gain, talde giro bikaina daukagu, eta horrek asko lagundu du. Lesioek ez digute asko lagundu, baina lesionatuta egon diren jokalariek ere izugarri eman diote taldeari. Partida guztietara etortzen zirenen gu babestera, eta beraiek ibili dira partidak grabatzen, gero bideoak ikusi eta gure hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

**Bigarren mailara igotzea lortuz gero, taldeak badauka maila horri aurre egiteko ahalmen edo aukerarik?**

Dirua beharko du Klubak maila berrian jokatu ahal izateko, eta hasi gara horretarako lanean. Enpresa batzuetako atea jo ditugu, baina egoera ekonomikoa zaila da, eta enpresa asko ez daude guri laguntzeko moduan. Hala ere, mailaz igotzen bagara, maila horretan jokatzeke aukera guztiak aztertuko ditugu.

**Noiz arte jarraituko du David Garridok areto futboleant?**

Mailaz igotzea lortzen badugu, hau izango da seguruenik nire azken denboraldia. Bigarren mailan desplazamenduak luzeagoak dira eta lana dela-eta, ezin izango ditut asteburuak kanpoan pasatu. Zuzendaritza taldean sartuta nago, eta modu horretan lagunduko diot taldeari. 17 urterekin hasi nintzen areto futboleant, eta pare bat urte kenduta, hutsik egin gabe jokatut gaur egun arte. Taldeko beteteranoa naiz, eta erretiroa hartzeko unea iritsi dela esango nuke. Gustatuko litzaidake taldea bigarren mailan utzita erretiratzea.



# Apirilaren 14an jokatu da Mendaroko mendi lasterketa

24 kilometro pasatxoko ibilbidea prestatu dute

**A**pirilaren 14an jokatu da Mendaroko mendi lasterketa, 24 kilometroko proba (23 kilometro mendiz eta bat asfalto gainean). 10:00etan abiatuko dira lasterkariak Herriko Enparantzatik, eta 1.350 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Iaz, 113 lagunek parte hartu zuten (bi proba amaitu aurretik erretiratu ziren) eta Imanol Goñi iruñearra eta Maite Maiora mendaroarra nagusitu ziren. Errekorra ezarri zuten biek ere, gainera. Goñik 1:53:48ko denboran bukatu zuen proba eta Maiorak 2:20:41ean.

Etun mendira igoko dira korrikalariak eta handik Madariagara auzora egingo dute. Madariagatik hiru bat kilometro egingo dituzte gero aldatz behera, Munitxibarreraino, Kilimon erreka ondoraino, eta handik berriro ere gorako bidea hartuko dute. Larraskanda baserri ondotik igaro eta Otarre gainera igoko dira, antenaraino, eta handik Erentza baserri ondotik, Gaintxipixa mendi magaletik, Lizarpera igoko dira. Lizarpetik Garalutzera joko dute gero, probako azkeneko gainera, eta handik aurrera aldatz behera egingo dute guztia. Ibilbidea seinalaztatua egongo da, eta bost anoa postu izango dira guztira.

## Izenemateak

Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko eta interesatuek bi aukera dituzte horretarako: Internetez, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) helbidean (apirilaren 11ra arte) eta egunean bertan, Mendaroko



frontoian. Aurrez izena ematen dutenek hamasei euro ordaindu beharko dituzte, eta egunean bertan ematen dutenek hogei euro. Proba egunean 8:15ean zabalduko dute izena emateko aukera eta 9:30ean itxi. Tarte horretan banatuko dituzte dortsalak ere.

Guztira, zazpi sari izango dira. Lehenengo bostek izango dute saria, bai gizonezkoetan zein emakumezkoetan, eta gero beste bi sari berezi izango dira: beteranoena eta lehenengo mendaroarrari dagokiona. Informazio gehiagorako: [mte.mendaro@hotmail.com](mailto:mte.mendaro@hotmail.com).

## Ivan Fernandez, David Garcia, Markel Kerexeta eta Mikel Leon dira aurretik Mekatar Xake Txapelketan

Txapelketako bosgarren urratsera iritsi da Mekatar Xake Txapelketa (lehenengo fasea), eta maiatzaren 5ean bukatuko da aurreneko fase hori. Momentuz, honakoak doaz lider, multzoka: A multzoan Ivan Fernandez (5 puntu), B multzoan David Garcia (4 puntu), C multzotan Markel Kerexeta (3 puntu) eta D multzoan Mikel Leon (4 punturekin). Laurek orain arte jokatuako partida guztiak irabazi dituzte.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Pasaia 1  
Getariako Keta 2 – Elgoibar 0 (erreg.)  
Kostkas Miren Bihotza 0 – Elgoibar 6 (Jubenila)  
Lagun Onak 2 – Elgoibar 0 (Kadete A)  
Elgoibar 5 – Lengokoak 2 (Kadete B)  
Elgoibar 5 – Aloña Mendi 1 (Ohorezko infantilak)  
Elgoibar 1 – Zarautz 3 (Infantil txiki)  
Elgoibar 4 – Iñitxa 5 (Alebina)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 11 – Sala Zaragoza 1

### PALA

Usurbil 25 - Lagunak 10

## AGENDA

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Barixakua, 5

18:15 Kukullaga – Aiala (Jub. neskak)

20:00 Errotabari – Lauko (Jub. neskak)

#### Zapatua, 6

10:15 Alkideba Sanlo – Aloña Mendi (Alebin neskak)

11:30 Alkideba Sanlo – Aloña Mendi (Alebin mutilak)

16:00 Aiala – Errotabari (Jub.nesk.)

17:45 Kukullaga – Lauko (Jub.nesk.)

19:30 Alcorta – Dominicos Zaragoza (Senior mut.)

#### Domekia, 7

10:15 Errotabari – Kukullaga (Jubenil neskek)

12:00 Lauko – Aiala (Jubenil neskek)

## Lagunak taldekoek galdu egin dute Udaberri Txapelketako finala

Lagunak taldeko pilotariak 25 eta 10 galdu zuten Udaberri Txapelketako pala finala Usurbilgo bikotearen kontra. Elgoibarko bikote titularrak ezin izan zuten partida jokatu; Mancebok belauneko bihurritua zuelako eta Etxeberriak min hartu zuelako entrenamendu batean. Euren orde, Berguak eta Agirrebeñak jokatu zuten. Usurbilgo bikoteak hasiera-hasieratik erakutsi zuten jokoan gehiago zirela eta partida guztian izan ziren nagusi. Elgoibartarrek egin ahalak egin arren, txapelketako bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

# Karakate eta Elosua batzen dituen ‘Dolmenen ibilbidea’ aurkeztu dute Debegesako eta Aranzadi elkarteko kideek

Gure arbasoen bizimoduan oinarrituta dago ibilbidea

**B**ergara, Soraluze eta Elgoibar arteko ondare natural eta kulturala balioan jartzeko ibilbide tematikoa prestatu dute Debegesak eta Aranzadi elkarteek; Dolmenen ibilbidea, hain zuzen ere. Arbasoen bizimodua eta eurek utzitako ondarean oinarrituta dago ibilbidea, izan ere, 3.000 urte baino gehiago dituzten arrasto arkeologikoak daude ibilbidean zehar, eta eragileek horren interes potentziala erabili nahi dute. Dolmenen Ibilbidean, Elosu-Plazentzia estazio megalitikoak osatzen duten tumulu eta dolmenak ikusi daitezke. Guztira, hamasei monumentu daude, hamar tumulu eta sei trikuharri. Monumentu horietako gehienak J.M. Barandiaranek aurkitu zituen, 1920tik 1921era bitartean, eta berak induskatu zituen, T. Aranzadiren eta E. Egurenen laguntzatz, 1921etik 1922ra.

Dolmenen ibilbideak Elgoibarko, Soraluzeko eta Bergarako turismoari bultzada eman nahi dio eta hori lortzeko hiru herrietako ordezkariak elkarlanean aritu dira. Aurkezpen ekitaldian ondorengoak izan ziren: Roke Akizu Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaria, Hiart Arluziaga Soraluzeko alkatea, Blanca Salegi Elgoibarko Udaleko Kultura Teknikaria, Juanje Amasorrain Bergarako Udaleko zinegotzia, Juantxo Agirre Aranzadi Zientzia Elkarteko Idazkari Nagusia eta Cristina Iturriagoitia Debegesako Turismo Arduraduna.



## Bisita gidatuak eta tailerrak

Ekimenaren sustatzaileek hilerro antolatuko dituzte ibilbidearen inguruko ekimenak, besteak beste, bisita gidatuak eta familientzako planak. Horiei buruzko informazio nahi izanez gero ondorengo telefonoetara deitu daiteke: Debanaturara (943 191 172/695 783 656) edo Debegesara (943 820 110)

## Sagardotegira irteera antolatu du Elgoibarko Izarrak apirilaren 13rako

Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko programazioaren barruan, sagardotegira irteera antolatu du Elgoibarko Izarrak apirilaren 13rako, eta elkarteko bazkideak ez ezik herritarrak ere gonbidatu dituzte irteeran parte hartzera, “elkarrekin herriarekin batera lortu duelako 50 urteotan lortutakoa”. Larrarte sagardotegian egingo dute bazkaria, eta ondoren Astigarragan bertan egingo dute parranda. 13:00etan irtengo da autobusa King-Kong autobus geltokitik, eta itzulera 00:00etan izango da. Irteeraren prezioa 40 eurokoa da. Interesatuak apirilaren 10erako eman beharko dute izena elkartean bulegoan, edota 943 741 626 telefonora deituta. Nahi izanez gero, [komunikazioa@elgoibarkoizarra.com](mailto:komunikazioa@elgoibarkoizarra.com) helbidera mezua idatzita ere eman daiteke izena.



## ‘Izar eta Zenaida’ antzerkia, apirilaren 14an

Eidabe Kultur Konpainiak *Izar eta Zenaida* antzezlanaren taularatuko du Herriko Antzokian apirilaren 14an. Keator maltzurak kaosa eragingo du, eta anabasaren erdian Izar neska euskalduna eta Zenaida gazte kubatarak Elgar ezagutuko dute. Elkarri eskua ematen diotenean botere magikoa dutela ikusiko dute, eta gaiztakeriari aurre egiten saiatuko dira. 16:30ean hasiko da saioa. Umeentzako sarrerek 3,5 euro balio dituzte, eta gurasoenek 5 euro.



# Atxutxiamaikaren udaldian izena emateko epea hilaren 15ean hasiko da

Bazkideek hilaren 10etik aurrera eman ahalko dute izena



**A**pirilaren 15ean zabalduko dute Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldearen udako eskaintzan izena emateko behin behineko epea. LH3tik LH6 urtera artekoentzako, Angoston (Araba) antolatutako egonaldiak uztaileko. Mendi irteerak, gaubelak eta tailerrak egiteko aukera izango dute, besteak beste, izena ematen dutenek. Apirilaren 26ra arte dago egonaldietan izena emateko aukera. Horien artean zozketa egingo dute maiatzaren 8an, plazak banatzeko, eta maiatzaren 16ra bitartean egin beharko da behinbetiko izenematea.

Era berean, HH2tik LH2ra artekoentzako txokoak antolatutako dituzte. Txikienek Herri Eskolan emango dituzte goizak, asteleheneetik barixakura, eta HH5etik LH2ra artekoek astean behin irteera bat egingo dute. Apirilaren 15etik 30era eman behar da txokoetarako izena. Elgoibarko Izarrako bazkideek hilaren 10etik aurrera eman ahal izango dute. Informazio gehiagorako 943 741 626 (Naiara) telefonora deitu daiteke.

## ‘Etzi’, Down sindromeari buruzko antzezlanaren taularatuko dute gaur zortzi Herriko Antzokian



*Etzi* antzezlanaren taularatuko du Dar Dar produkzioak taldeak gaur zortzi, Herriko Antzokian. Down sindromedun pertsonengana eta haien familiengana hurbiltzeko ikuskizun hunkigarria da. Umore, intriga eta drama puntu batez, bizitza eta gizakia-ekin adiskidetzen laguntzen duten ikuskizun horietakoa, alegia. Euskal Herrian lehen aldiz, Down sindromedun aktore bat talde profesional batekin taula gainean lanean ikusteko aukera eskainiko digu *Etzi* antzezlanak. Jose Ramon Soroz, Pilar Rodriguez, Gorka Zufiaurre, Asier Oruesagasti eta Asier Zinkunegi izango dira aktoreak. 20:30ean hasiko da saioa. Sarrerak Kutxan eros daitezke aurrez, baina lehiatilan bertan ere jarriko dituzte salgai 10 euroan (ikasleek eta gazte txarteldunek, 7 euro).

## Pako Aristik Herri Eskola bisitatu du

*Idazleak Eskolan* egitasmoaren barruan, Pako Aristiren bisita jaso zuten Herri Eskolako ikasleek. LH6. mailako ikasleekin elkartu zen *Zazpi pirata saltsa batean* eta *Txabolaren terapeutikoa* liburuei buruz hitz egiteko.



## Apolinar Aldalurren erakusketa inauguratuko dute gaur

Apolinar Aldalurren margo erakusketa inauguratuko dute gaur arratsaldean. Apirilaren 21era arte egongo da ikusgai, asteleheneetik zapatara, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## Harry Bird bakarlariaren kontzertua domekan Iratxo tabernan

Harry Bird bakarlari eskoziarrak kontzertua eskainiko du domekan, Iratxo tabernan. Folk doinuak ekarriko ditu 2003tik Bilbon bizi den eskoziar honek. Kontzertua 20:00etan hasiko da.



**LANA.....**

*Eskara*

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.  
☎ **690 625 929 / 943 531 378**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Autoa daukat.  
☎ **688 802 701**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo asteburuetan.  
☎ **609 842 165**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna.  
☎ **606 118 964**
- Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna.  
☎ **628 738 472**
- Neska euskalduna eskaintzen da jantzi dendan lan egiteko. Edozein ordutegi. Esperientziaduna.  
☎ **618 814 064**
- Neska lanerako prest: Zerbitzari, nagusiak edo umeak zainduz, sukalde laguntzaile, garbitzaile...  
☎ **608 474 923**
- Gizonezkoa lan bila. Nagusiak zaintzeko prest, orduka edo interno. ☎ **631 361 762**
- Emakumea garbiketa lanetarako prest. Interna edo gauzez nagusiak zaintzeko prest.  
☎ **628 014 327**
- Astelehen eta ostiraletan orduka lan egiteko prest. Masajista, terapeuta edo estetika lanetan.  
☎ **617 053 329**
- Mutila nagusiak zaintzeko prest edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **686 077 316**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. ☎ **699 609 190**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, prest. Orduka edo interna.  
☎ **626 052 165**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari, sukalde laguntzaile edota garbiketa lanetarako prest.  
☎ **602 068 313**

- Emakumea lan bila. Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. Gauetan adinekoei konpainia egiteko prest. ☎ **628 738 472**
  - Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Astegunetan, goizez.  
☎ **632 054 894**
  - Neska, lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari, sukalde laguntzaile edota garbiketa lanetarako prest.  
☎ **608 474 923**
  - Neska lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Astegunetan, goizez. ☎ **699 232 823**
  - Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka, gauzez nahiz asteburuetan.  
☎ **680 121 252**
  - Neska gaztea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko.  
☎ **648 505 256**
  - Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka nahiz asteburuetan.  
☎ **609 842 165**
  - Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak.  
☎ **606 118 964**
  - Emakumea lan bila: nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest.  
☎ **943 257 605**
  - Gizonezkoa lan bila. Ospitalean pertsona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest.  
☎ **688 812 845**
  - Emakume elgoibartarra nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edo orduka.  
☎ **660 551 781**
- Eskaintza*
- Eibarko taberna batek euskaraz dakien zerbitzaria behar du.  
☎ **697 245 186**

**ETXEBIZITZAK.....**

- Etxea alokairuan Elgoibarren. Altzariekin.  
☎ **636 233 175**
- Logela hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren edo Eibarren.  
☎ **615 458 103**
- Etxea alokagai Elgoibar erdialdean. Bi logela. Berritua.  
☎ **660 056 240**
- Logelak alokagai, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Etxea eta jantziak garbitzen ditut.  
☎ **679 843 332**
- 30 urteko mutila pisua eta pisukide bila dabil. Aukeran nahiago du pisukide emakumezkoa.  
☎ **650 015 311**

**KINTOAK.....**

- 1971n jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 18an Txaridunetan. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte Sabadell Guipuzcoanoko kontu korronte honetan, maiatzaren 8rako: 0081 4235 45 0001047409. 12:30ean batuko dira Maala tabernan.
- Sigmakoek bazkaria, uztailearen 25an. Interesatuak 45 euro sartu beharko dituzte La Caixako kontu korronte zenbaki honetan, ekainaren 3rako: 2100 416871 2100263203.
- 1973an jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 1ean, Belaustegi jatetxean. 50 euro sartu behar dira Kutxako kontu honetan, maiatzaren 15erako. 2101 0036 64 0013151006

**BESTELAKOAK.....**

- Sukalderako egurrezko mahai berria salgai. 120x80cm neurrikoa. Luzatu egiten da. Prezio onean.  
☎ **943 748 864**
- Larruzko txaketa marroia galdu dut Pedro Migel Uruzuno kaleko 27 zenbakitik Osasun Zentrorra bitartean.  
☎ **636 542 819**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



• Zorionak, **Oier**, martxoaren 31n 2 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki Unaxen partez.



• Zorionak, **Colin**, zure bederatzigarren urtebetetzean. Aita eta amaren partez.



• Zorionak **Xabier Arriolari** bere bederatzigarren urtebetetzean. Patxo handi bat Oierren partez.



• Zorionak, **Julen!** Patxo bat familiakoen, eta bereziki, Naiararen partez.



• Zorionak, **Leire!** 7 urte, zazpi patxo, zazpi lore!



• Zorionak, **Alaine**, zure hirugarren urtebetetzean. Patxo potolo bat denon partez.



• Zorionak, **Eulali**, zure lehen urtebetetzean, aitatxo eta amatxoren partez. Muxu handi handi bat.



• Zorionak, **Eider**, zure seigarren urtebetetzean. Primeran ospatuko dugu bihar! Muxu bat, Junesen partez.



• Zorionak, **Haritz!** Oso ondo pasatu genuen zure bosgarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak **gure bi sorgintxoak**, 5 urte bete dituztelako. Muxu asko-asko etxekoen eta lagun guztien partez.

#### AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## 5 barixakua

### *Erakusketa*

18:30 Margo erakusketa

Apolinar Aldalurren margo erakusketa jarriko dute ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 21era arte.

## 7 domeka

### *Musika*

10:00 Udal Musika Bandaren kalejira

Kalegoen plazatik abiatuta.

### *Musika*

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

1. *Vista alegre*. (Fernando Godoy)
2. El tambor de granaderos (Ruperto Chapí)
3. *Batman* (Danny Elfman)
4. *Orient Express* (Phipil Sparke)
5. *Los rios* (Malando Vlák)
6. *The fairest of the air* (J. P. Sousa)

### *Musika*

20:00 Harry Bird

Folk kontzertua, Iratxo tabernan.

## 11 eguena

### *Aurkezpena*

19:00 Landa-paisaia

Landa-paisaia atlantikoen balioa agerian jartzeko proiektua aurkeztuko du Debemenek. Kultur Etxeko sotoan.

## 12 barixakua

### *Antzerkia*

20:30 'Etxi'

Dar Dar produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## ZINEA

### 'Argo'

5, barixakua: 22:15  
6, zapatua: 19:00/22:15  
7, domeka: 19:00  
8, astelehena: 21:30



**Zuzendaria.** Ben Affleck. **Aktoreak:** Ben Affleck, John Goodman.. AEB. 20 min. Thriller politikoa. Teherango gertaeren ostean, enbaxadatik ihes egin zuten sei langileek herrialdetik irteteko egindako ahalegina.

### 'Los Croods'

7, domeka: 16:30  
(Marrazki bizidunak)



Haien koba suntsitzean, Croods familia abentura berri bati ekingo dio. Ordura arte bizitako guztia gaindituko du bidaiak.

### 'Bob Marley'

Ongarri zinekluba  
11, eguena: 21:30



**Zuzendaria.** Kevin Macdonald. AEB, 2012. 144 min. Bob Marley abeslariaren bizimodua kontatzen duen dokumentala.

### OKINDEGIA

7 domeka:  
**IBARRENEA**



### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

### GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

5 Fernandez  
6 Etxeberria

7 Etxeberria  
8 Zabaleta  
9 Barrenetxea  
10 Ibañez  
11 Garitaonandia  
12 Etxeberria

### Gauetz

22:00 - 9:00

Garitaonandia  
Etxeberria

Etxeberria  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Yudego  
Garitaonandia  
Etxeberria



# OSASUN GIDA



## OPTIKAK

**65\07**  
**IKUS**  
**OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10  
Elgoibar  
Tel: 943 743 734

**183\12**  
**UZURI**

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar  
Tel: 943 740 359

## MASAJEAK

**22\12**  
**VICTORIA IRAEGI**

Esku terapiak

- Kiropraxia
- Dranatzaille linfatikoa
- Osteopatia
- Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astelehenetik  
Ostiralera:  
8:00 / 14:00

San Frantzisko  
kalea, 40 (atzealdea)  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 770

## HORTZ KLINIKAK

**171\12**  
**LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

## OTORRINOLARINGOLOGIA

**183\12**  
**UZURI**

- Entzumen protesia
- BERRIAI**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
  - Audiometriak
  - Audifonoak
  - Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Frantzisko, 21  
Elgoibar  
Tel: 943 740 359

## FISIOTERAPIA

**271\12**  
**AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA**

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

**177\12**  
**FISIO&MÁS**

FISIOTERAPIA  
AURRERATUA ETA  
KIROL BERREGOKITZEA

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa:
  - +Traumatologia.
  - + Estetika (zelulitisa, estriak)

OSASUNERAKO  
ARIKETA AGINDUA  
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

ENTRENAMENDU  
GIDATUA.

Aupa Zen Medikuntza  
Estetika Zentrua

Jausoro plaza, 1-Elgoibar

(Sta. Klaran, Udaletzeko zubitik gertu)

Tel.: 667 95 36 28

# VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit  
inoiz ez dela berandu  
irribarre polit bat  
edukitzeko

Ortodontzian  
espezialistak



RPS 49/12

**EIBAR**  
**San Juan kalea, 7**  
**943 82 18 85**